

“EUSKADIN MICE PRODUKTU TURISTIKOA GARATZEKO ETA KUDEATZEKO AZTERKETA” EZARTZEKO ZERBITZUAREN KONTRATAZIOARI BURUZKO BALDINTZA TEKNIKOAK

1. AURREKARIAK


Euskal turismoak gizartean eta erakundeetan aberastasuna eta enplegua sortzeko gai den jarduera gisa hartu dezaten du helburu. Beste sektore eta jarduera batzuk sustatu, herritarren bizi-kalitateari eta ongizateari ekarpena egin, lurraldea modu iraunkorrean antolatu eta garatu, munduan Euskadiren ospea eta irudia toki erakargarri gisa hobetu, bai turismo-jarduerak garatzeko, bai inbertsioak eta talentua erakartzeko. Horien guztien eragile gisa ikus dezaten nahi du euskal turismoak.

Hori guztia Euskadi guztien artean landu eta toki turistiko iraunkorra izan dadin ikuspuntu ekonomikotik, sozialetik, ingurumen-arlotik eta lehentasunezko merkatu nazionalentzat eta nazioartekoentzat eta pertsona guztientzako kalitatekoa, eskuragarria eta erakargarria izan dadin.

Euskal Turismoaren 2010-2013rako Lehiakortasun eta Berrikuntza Planeko (aurrerantzean ETLBP 2010-2013) 7. ardatzaren (Gobernantza: lidergoa eta lankidetzak) helburuetako bat zeharkakotasunean oinarritutako gobernantza publiko egoki bat garatzea da, Euskadi turismogune nahiz enpresen eta gainerako eragileen gune izateko, lehiakortasunean eta berrikuntza hobetuta eragin biderkatzaileak izan ditzan.

Ardatz horren bidez, erronka berri indibidualak eta kolektiboak adosteko eta kudeatzeko ahalik eta marko publiko-pribatu onena sortu behar du Eusko Jaurlaritzako Merkataritza eta Turismo Sailburuordetzak euskal turismoaren etorkizunaren inguruan, dagokion lidergoari erantzunez. Honakoak egin behar ditu eremu publiko-pribatuan:

- Epe labur-ertainera, beste erakunde batzuekin lankidetzak eta erantzukidetasuna sustatzea ETLBP 2010-2013ren ildoetan oinarrituta eta plan




horren baitan lehendik dauden planak ere sustatzea (Euskadiko Turismo Marketinerako 2010-2013rako Plana, Gida Planak, Produktu Planak eta abar).

- Jaurlaritzako gainerako sailekin aipatutako aldian elkarrekin jorratuko dituzten jarduera-ildoak eta ekimenak adostea.
- Era berean, ETLBP 2010-2013ren 7.2 ildoak lidergoari eta erakundeetan edo alor publikoan errespetuan oinarrituta eta administrazio-maila bakoitzaren eskumenak nork bere gain hartuta, koordinazioa, lankidetzaren eta erantzukidetasuna sustatzeari buruzkoa da eta honako puntu hauei egiten die erreferentzia:
 - 7.2.1 Erakundeen arteko koordinazioa sustatzea
 - 7.2.2 Turismo lehiakor eta iraunkorraren inguruan gobernatzeko ekintza adostu baten lidergoa hartzea sailen eta arloen arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bidez.

Euskal Turismoaren 2010-2013rako Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana eta Turismo Marketinerako Plana

2013ra begira, euskal turismoa lehiakorra izateko estrategia euskal turismoaren abiapuntuko egoeraren diagnostikoa egiteko prozesuan parte hartu duten eragileek ikuspuntua adostuta gauzatu da. Horretarako, lehenik, euskal turismo-industriaren lehiakortasunaren azterketa egin zuten.

Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus **Euskal Turismoaren 2010-2013rako Lehiakortasun eta Berrikuntza Plana (dokumentu exekutiboa)** www.basquetour.net guneko argitalpenen atalean.



2009an **Euskadiko Turismo Marketinerako 2010-2013rako Plana** prestatu zen. Plan horretan produktuen sailkapen bat egin zuten eta garatu beharreko produktu turistikoei lehentasuna eman zioten:

A multzokoak: City-Breaks, **Bilerak (MICE)**, Touring, gastronomia eta ardoak: Euskadik apustu sendoa egin behar du lau produktu horien alde eta horiek dira lehentasunezko ildoak.

B multzokoak: Landa-giroa, natura eta abentura, kultura eta ekitaldiak: Euskadik horien aldeko apustua ere egin behar du baina lehen aipatutakoetan baino indar eta ahalegin txikiagoa eginda. Izan ere, Euskadin, horien erakargarritasuna eta lehiakortasuna txikiagoa da.

Euskadiko Turismo Marketinerako 2010-2013rako Planak 1 xede, 3 helburu, 5 produktu-estrategia, 4 komunikazio-estrategia, 6 salmenta-estrategia eta 4 marketin-azpiegiturarako estrategia ditu ezarrita; 51 taktika, guztira.

Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu Euskadiko Turismo Marketinerako 2010-2013rako Plana www.basquetour.net webguneko argitalpenen atalean.


MICE produktuak Euskadiren turismo-estrategian duen garrantzia aintzat hartuta, 2011n **MICE produktu turistikoa garatzeko eta kudeatzeko azterlana (aurrerantzean Azterlana)** egin da. Honako atal hauek ditu azterlan horrek:

Diagnostikoa (barruko zein kanpoko azterketa):

- Hurbilketa MICE turismora
- Eskaintzaren azterketa
- Eskaeraren azterketa
- Erreferentziazko norakoen benchmark azterketa

Proposamen estrategikoa:

- Diagnostiko estrategikoa



- Formulazio estrategikoaren proposamena
- Jarduera-ildoen laburpena

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Lehiaketa honen helburua produktu turistikoak (batez ere MICE arlokoak) garatzen eta kudeatzen esperientzia duen enpresa baten asistentzia kontratatzea da. Enpresa horrek gauzatuko du **plan operazionala** Azterlanean ezarritako definiziotik abiatuta. (**MICE produktu turistikoa garatzeko eta kudeatzeko azterlanaren** bertsio osoa eskuratzeko, bidali mezu elektroniko bat info@basquetour.net helbidera, eranskineko dokumentuan ezarritako baldintzak onartzen dituzula adieraziz).


Beraz, taktika horiek ezartzeko laguntza (bulego teknikoa) behar dugu eta aurretik ildoak zehaztu eta Azterlanean proposatutako taktika bakoitzari dagokion lehentasuna esleitu eta zehaztu egin behar da. Hori guztia egoera erreal batean egin behar da, eskura dauden baliabide ekonomikoetan eta giza baliabideetan oinarrituta plana eraginkor bihurtzeko.

Azterlanean, formulazio estrategikoek taktikak edo ekintza estrategikoak ekarri dizkiote ondorengo ardatz hauen inguruan planteatutako estrategia bakoitzari:

- Produktuari eta marka/norakoari buruz
- Sustapenari eta merkaturatzeari buruz
- Sektoreko kultura profesionalizatzeari eta garatzeari buruz
- Berrikuntzari eta garapen teknologikoari buruz
- Plana kudeatzeari, antolatzeari eta ezartzeari buruz

3. PROPOSAMENAREN EDUKIA

Lizitatzailleek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte balorazioa egin dadin:




- Eskatutako lana egiteko erabiliko den metodologiari buruzko azalpenak ematen dituen dokumentua.
- 1. eta 2. urtean egin beharreko ekintzen lehenespen-proposamena (MICE planari buruz dokumentuan egindako proposamen guztietatik aukeratuta. Plegu honen 2. puntuan ezarritakoaren arabera eskatu behar da).
- Proiektua gauzatuko duen lantalde teknikoaren aurkezpena: jarduera bakoitzerako izendatutako giza baliabideen profila (trebakuntza eta esperientzia). Profilak esperientzia egiaztatuarekin (teorikoa eta praktikoa) baloratuko dira. Lantaldeko kide bakoitzak atal bakoitzari eskainiko dion denbora ere adieraziko da. Lantaldeko kide bakoitzak zenbat ordu lan egiteko konpromisoa duen ere adierazi beharko da.


Proiektuaren arduradunak proiektuari eskainiko zaion lanaldian kontuan hartu behar du lanaldiaren ordu asko (% 40, gutxi gorabehera) Euskadin bertan egin behar direla, beharrezkoa baita azterlana ezartzeko lanetan partaide den euskal sektorearekin *in situ* harremana izatea. Beraz, lanean partaide diren gainerako espezialisten lanaldi presentzialeko orduak enpresa esleipendunak aurkeztutako proposamenak dakartzan beharretara egokitu egin beharko dira.

4. ENPRESA ESLEIPENDUNAK EGIN BEHARREKO LANAK:

Proiektua esleitutakoan, enpresa esleipendunak honako lan hauek egin beharko ditu Basquetourren gainbegiradapean:



- Kudeaketarako egitura bat proposatzea (sare publikorako eta publiko-pribaturako kalitate-arauen edo -estandarren arabera lanerako eredu bat zehaztea).
- **Datozen 4 urteetarako** laneko estrategia bat finkatzea produktua garatzeko, kudeatzeko eta ezartzeko, **lehen 2 urteetarako** zehaztutako lanetan lehentasunak finkatu eta horiek **gauzatzeko proposamena** egin behar dela aintzat hartuta (fase bakoitza eta dagozkion ekintzak gauzatzeko kronograma eginda).
- Erabakiak hartzeko, jardueren kontrol eta jarraipenerako eredu bat finkatzea.
- Jardueraren aurrekontua ardatz eta taktika bakoitzaren arabera.
- Gauzatzeko laguntza (**Bulego teknikoa**) **lehen urtean**:
 1. Lanerako plan bat egitea BASQUETOURREK onar dezan.
 2. Koordinazio lanak egiteko eta lanerako planari jarraipena egiteko bileren kronograma prestatzea eta hilean behin eta hiru hilean behin honako txosten hauek igortzea:
 - Asistentziari egindako jarraipenari, lan egindako orduetara eta jarduerak gauzatzeari buruzko txostena.
 - Asistentziari buruzko txosten ekonomikoa (gastuak).
 3. Partaide diren sektoreekin egin beharreko aurkezpenak eta bilerak kudeatzea eta koordinatzea.
 4. Erakunde kudeatzaile eta administrazio bakoitzarekin egindako bileretan asistentzia eta koordinazioa, Basquetourreko produktuen alorrekin koordinatuta eta haren begiradapean.
 5. Etengabeko komunikazioa Basquetourrekin. Lanegunetan 9:00etatik 18:00etara (zubietan eta jaiegunetan ez).
 6. Basquetourreko produktuen arloarekin batera plangintza egitea, lehiakortasun eta marketin-arloekin eta horien unitateekin koordinatuta:



6.1 Koordinazioa **Lehiakortasun Arloarekin** produktuen eta erakunde kudeatzaileen ildoak ezartzeko lanetan, produktuen arloaren bidez, ondorengo ekintza hauek eginda:


- Lurraldearen garapena
- Helmugako kalitate-sistemak ezartzea.

6.2 Koordinazioa eta laguntza teknikoa esleipendunak zehaztuko dituen sustapen-planak ezartzeko diseinu- eta kudeaketa-lanak egiten (planen diseinua, balorazioa, gauzatzea eta ebaluazioa). Turismoa sustatzeko eta merkaturatzeko ekintza eta baliabide guztiak Basquetourreko **Marketin Arloarekin** (sustapen- eta salmenta-unitateak) koordinatu eta bateratu behar dira:

- MICE produktuaren marketin-plana prestatzea eta gauzatzea, Marketin Plan Nagusiaren arabera ekintzak, jarduerak eta publizitatea eginez.
- Aholkularitza eta elkarlana honako lan hauek egiteko:
 - Sustapenerako elementuak kontratatzeke.
 - Diseinuak, sormen-lanak, edukien egokitzapenak, diseinuan eta maketazioan, aldaketa eta egokitzapenak linean eta lineaz kanpo egiteko.
 - Prentsa-bidaiak eta bidaia-antolatzaileak.
 - Laguntza teknikoa jardunaldiak, mintegiak eta sustapen-jarduerak kudeatzeko: ekitaldiak, azokak...
 - Produktu-klubarekin lotutako ekintzak.
 - Definizioa eta koordinazioa merkatu-azterketan.

6.3 **Komunikazio** unitatearekin.

- Euskadiko turismoaren webgunean, MICE produktuari dagozkion edukiak hobetzeko eta eguneratzeko proposamenak.
- Aholkularitza, kudeaketa eta lankidetzaren sustapen-elementuak kontratatzeke, elkarlana hedabideetako kanpainak kudeatzeko,



txertatzeak, 2011-2012rako Bitartekoen Planaren enpresa esleipendunarekin jarraipena.

- Laguntza teknikoa, koordinazioa eta jarraipena produktuari buruzko barneko eta kanpoko komunikazioetan.

5.- PROIEKTUA AMAITZEAN ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK:

Kontratua amaitu eta Basquetourren oniritzia jaso ondoren, honako dokumentu hauek igorriko dira:


- Egindako jardueri buruzko txostena/memoria euskaraz eta gazteleraz eta ondorengo formatu hauetan aurkeztua eta maketatua: pdf, .ppt eta .doc. 4 kopia aurkeztuko dira, paperean eta koadernatuta.
- Dokumentu exekutiboa: jardueren memoriaren laburpena. Sektoreari aurkezpenak egiteko erabiliko den dokumentuaren bertsio publikoa izango da. Euskaraz eta gazteleraz aurkeztu behar da, ondorengo formatu hauetan egokituta eta maketatuta: pdf, .ppt eta .doc. 4 kopia aurkeztuko dira, paperean eta koadernatuta.

6.- GAINBEGIRATZEA ETA KONTROLA

BASQUETOURL Turismoaren Euskal Agentziari dagokio lanen ikuskatze eta zaintza iraunkorra eta zuzena gauzatzea. Xede horretarako, esleipendunak lanaren edozein prozesuren edo faseren azterketa emango du. Esleipendunak Basquetour agentziarekin zehaztu beharko du azterlanaren segimendua egiteko bileren egutegia.

BASQUETOURL Turismoaren Euskal Agentziak laguntza emango dio esleipendunari; duen informazioa emango dio, eta elkarlanean arituko dira, berarenak ez diren informazio iturrietarako sarbidea lortze aldera.

BASQUETOURL Turismoaren Euskal Agentziako ordezkari batek zuzenduko ditu lanak, eta ordezkari horrek berak gauzatuko du koordinazio eta gainbegiratze lana ere. Halaber, esleitutako proposamenari edozein aldaketa egiteko BASQUETOURL



agentziaren onarpena izan beharko da, eta agentzia horrek edozein unetan aldaketak adieraz ditzake laneko zuzentarauean.

7.- LANAREN JABETZA ETA BABESPEKOTASUNA

BASQUETOUREn jabetzakoak bakarrik dira txostenak eta haietan barne hartu diren datu guztiak, bai eta horietatik eratorriko direnak ere.

Era berean, babespekoak izango dira, eta ezingo dira argitaratu, ez osorik ez eta haien zati bat ere, eta ezingo dira bestela erabili, aldez aurretik BASQUETOUREk idatzizko berariazko baimena ematen ez badu.

Esleipendunak ezingo du egin, inolaz ere, proiektuen inguruko adierazpenik jendaurrean, aurrez BASQUETOURE agentziak horretarako berariazko baimena ematen ez badu.

